

EBAZPENA, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordeak emana. Haren bidez, “Santander Bekak | Laguntza ekonomikoa 2026” programan bost beka emateko deialdia egiten da Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleentzat, eta baimena ematen da horretarako gastua egiteko.

2024ko uztailaren 3an, Nafarroako Unibertsitate Publikoak lankidetzeta-hitzarmen orokor bat sinatu zuen Banco Santander SArekin, eta, haren bidez, Unibertsitateak bost bekarekin hartzen du parte “Santander Bekak | Laguntza ekonomikoa 2026” beken deialdian.

Ikusirik Zerbitzu Juridikoaren txostena.

Ikusirik Ekonomia Gaietarako Zerbitzuaren txostena.

Aurrekontuan horretarako dirua badela kontuan harturik.

Ikusirik Sarbidearen, Beken eta Tituluen Ataleko buruak egindako txostena.

Kontu-hartzailetzak aldeko fiskalizazioa eginik.

Errektoretza-taldearen egitura orokorra eta eginkizunak onesten dituen 2023ko ekainaren 20ko 1306/2023 Ebazpenaren bidez Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak delegatu dizkidan eskudantziak erabiliz –ebazpen hori Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen 2025eko otsailaren 25eko 351/2025 Ebazpenaren, 2025eko maiatzaren 26ko 1026/2025 Ebazpenaren eta 2025eko ekainaren 4ko 1101/2025 Ebazpenaren bidez aldatu zen–,

EBAZTEN DUT:

Lehenbizikoa.- Deialdia onestea “Santander bekak | Laguntza ekonomikoa 2026” programan bost beka emateko (gehienez) 2026-2027 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko graduako edo masterreko titulu ofizialen batean matrikulatuak dauden ikasle hautatuei, baldin eta ebazpen honen eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Bigarrena.- 5.000 euroko gastua baimentzea 2026ko gastuen aurrekontuko *Ikasleen matrikularako bekak eta laguntzak* 305200A/0540/480.02 partidaren kargura (espediente zk.: 2026/0000950).

Hirugarrena.- Ebazpen hau Kontabilitate Atalari eta Barne Kontrolerako Zerbitzuari aditzera ematea.

Laugarrena.- Agindua ematea ebazpen hau eta haren eranskina Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoa ofizialean argitaratu dadin.

Bosgarrena.- Agindua ematea ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu dadin.

Seigarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko Lege Organikoaren 38.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, eta haren kontra zilegi da aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea, errektoreari zuzendua, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko maila bereko atalari zuzendua, hilabeteko epean lehenbiziko kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarrenean, biak ere ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Dokumentu hau honako honek sinatu du digitalki:

Begoña Pérez Eransus

Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordea.

Eranskina, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordearen ebazpenarena.

Deialdiaren oinarriak, “Santander Bekak | Laguntza ekonomikoa 2026” programan bost beka emateko Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleentzat.

Deialdi hau honako hauetan ezarritakoaren arabera garatzen da: alde batetik, 2026ko “Santander Bekak | Laguntza ekonomikoa 2026” programaren termino eta baldintza orokorrak (eranskinean jasoak), eta, bestetik, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Banco Santander SArekin sinatutako lankidetzaz-hitzarmen orokorra, 2024ko uztailaren 3koa.

1. oinarria.- Onuradunak eta bekek estalitako gastuak

1.- Programaren onuradun izaten ahalko dira 2026-2027 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko (aurrerantzean, NUP) gradu edo master ofizial batean matrikulatuta dauden ikasleak, baldin eta beren espediente akademikoan 8,50 puntuko gutxieneko batez besteko nota lortu badute, 4. oinarrian ezarritakoaren arabera.

2.- Esleipena egiten den egunean onuraduna zer ikasketatan dagoen matrikulatuta, ikasketa horien garapenari eta haietan modu eraginkorrean jarraitzeari lotutako gastuak ordaintzeko erabili beharko da beka. Zehazki, jarraian adierazten diren kontzeptuetarako erabili beharko da beka, eta betiere 2026-2027 ikasturtean:

- Ikasketetan jarraitzeko beharrezkoa den material informatikoa erostea (ordenagailuak, tabletak, periferikoak edo software espezifikoak).
- Internetera konektatu eta sartzeko gastuak.
- Hiriarteko garraioaren gastuak, dela ikastegira joateko, dela ikastegitik beste herri batera joateko, matrikulatutako ikasketekin lotutako jarduerak egiteagatik (praktikak, unibertsitate arteko ikasketak egitea, titulazio bikoitzak, aipamenak, etab.).
- Unibertsitateko jantokiaren gastuak.
- Bigarren matrikuletatik eratorritako gastuak (kasua bada), bai eta deialdi orokorreko bekek estaltzen ez dituzten zabalpen kredituetatik eratorritakoak ere.
- Material bibliografikoa erostea.

Kontzeptu horietako edozeinetarako erabiltzen ahalko dira bekek, barne hartuta matrikularen eta prezio akademiko ofizialen gastuak, salbu eta gastu horiek ez badira partzialki edo erabat finantzatuak izan Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioak nahitaezko ikasketen ondorengo ikasketetarako ematen dituen beka orokorrekin.

3.- 2027ko irailaren 30a baino lehen, ikasle onuradunek gastuen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte (fakturak, ordainagiriak, bidaia egiaztagiriak eta kontratuak), egiaztatuko dutenak bekaren zenbatekoa oinarri hauetan adierazitako kontzeptu baterako edo batzuetarako erabili dela.

Egiaztagiriak NUPen erregistro elektronikoen bidez aurkeztuko dira (<https://sedeelectronica.unavarra.es/oficina/tramites/acceso.do?id=8256&lang=es&entity=1096>), eskabide orokor bat bidaliz Sarbidearen, Beken eta Tituluen Atalera.

2. oinarria.- Beken kopurua eta zenbatekoa

- 1.- Bost beka emanen dira gehienez.
- 2.- Ikasle onuradun bakoitzak jasoko duen beka 1.000 eurokoa izanen da.
- 3.- Deialdi honen xede diren beketara bideratuko den zenbatekoa 5.000,00 eurokoa izanen da guztira, 2026ko gastuen aurrekontuko *Ikasleen matrikularako beka eta laguntzak* 305200A/0540/480.02 partidaren kargura (espediente zk.: 2026/0000950).

3. oinarria.- Beken banaketa

1.- Eskatzaile bakoitza egiten ari den graduko edo unibertsitate masterreko ikasketa ofizialak zer jakintza-arlori atxikiak dauden, horren arabera multzokatuko dira beka-eskaerak:

- 1. multzoa: Arteak eta Giza Zientziak, Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak, bi beka.
- 2. multzoa: Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, bi beka.
- 3. multzoa: Osasun Zientziak, beka bat.

Datuen Zientziako Graduko eta Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako Graduko ikasketa ofizialen baterako programan matrikulatutako ikasleen eskaerak 2. multzoan sartuko dira.

Industria Ingeniaritzako Unibertsitate Masterreko eta Enpresen Zuzendaritzako Unibertsitate Masterreko ikasketa ofizialen baterako programan matrikulatutako ikasleen eskaerak 2. multzoan sartuko dira.

2.- Multzo bakoitzaren barnean, eskaerak ikasle bakoitzaren espediente akademikoaren batez besteko notaren arabera ordenatuko dira, batez besteko nota deialdi honen 4. oinarrian adierazi bezala kalkulatuta, eta, ordena hori kontuan hartuta, beka bana esleituko da multzo bakoitzari esleitutako beka kopurua bete arte.

3.- Irizpide hori aplikatu eta gero ez badira beka guztiak esleitu multzoren batean eskaera nahikorik ez dagoelako, gainerako eskaerak ikasle bakoitzaren espediente akademikoaren batez besteko notaren arabera ordenatuko dira, batez besteko nota deialdi honen 4. oinarrian adierazi bezala kalkulatuta, eta, ordena hori kontuan hartuta, beka bana esleituko zaie eskabideak dituzten talde guztiei.

4.- Batez besteko notan berdinketarik badago, graduko edo masterreko titulu gaitutako kredituen ehuneko handiena duenari emanen zaio lehentasuna. Irizpide hori aplikatu ondoren berdinketak segitzen badu, ohorezko matrikula, bikain, oso ongi eta gaitutua kalifikazioetan kreditu gehien daukanaren eskaerari emanen zaio lehentasuna.

4. oinarria.- Batez besteko notaren kalkulua

1.- Graduako ikasleen espediente akademikoaren batez besteko nota kalkulatzeko, espedientean agertzen diren 2025-2026 ikasturtean gainditutako zenbakizko azken kalifikazio guztiak hartuko dira kontuan, 2003ko irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. artikulua ezartzen duenari jarraikiz (dekretu horrek kredituen sistema europarra eta Espainiako lurralde osoan ofizialak eta baliodunak diren unibertsitateko titulazioetako kalifikazio sistema arautzen du). Zenbakizko kalifikaziorik ez badago, baremo honen arabera kalkulatuko dira kalifikazioak:

Ohorezko matrikula: 10 puntu.

Bikain: 9 puntu.

Oso ongi: 7,5 puntu.

Gainditua edo gai: 5,5 puntu.

Ikasketa ofizialen baterako programetan matrikulatutako ikasleen kasuan, programa horretan egindako irakasgaietako zenbakizko azken kalifikazioekin egingen da kalkulua.

2.- Lehen aldiz graduako ikasketetako lehenbiziko mailan matrikulatzen diren ikasleek, baldin eta Batxilergoko tituluaren jabe badira eta Unibertsitatera Sartzeko Probaren bidez sartu badira unibertsitatera, hau izanen dute azken kalifikazioa: batxilergoko batez besteko notaren % 60 eta derrigorrezko fasearen kalifikazioaren % 40, enborreko irakasgaietan lortutako kalifikazioak alde batera utzita. Unibertsitatera sartzeko gainerako bideetan, unibertsitatean sartzeko aukera ematen duen proban edo irakaskuntzan lortutako kalifikazioa izanen da batez besteko nota. Kalifikazio hori 0 puntutik 10era bitarteko eskalarekin bat ez badator, bidezkoa den egokitzapena egingen da eskala horretara doitzeko.

3.- Masterreko lehen ikasmilan lehen aldiz matrikulatzen diren ikasleen batez besteko nota hura eskuratu aurreko titulazioan lortutakoa izanen da, 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den unean titulazioan gaindituta dituzten kreditu guztiak hartuko dira kontuan.

4.- Atzerriko unibertsitateetatik datozen espedienteen kasuan, interesdunek atzerriko zentroetan egindako unibertsitate ikasketen batez besteko notaren baliokidetasun adierazpena aurkeztu beharko dute. Honako esteka honetan eskuratzen ahalko dute: https://universidades.sede.gob.es/pagina/index/directorio/Equivalencia_notas_medias/language/eu_ES

5. oinarria.- Eskaerak aurkezteko forma eta epea

1.- Bekarako eskaera aurkezteko, ezinbestekoa izanen da programan izena ematea horretarako sortutako web-esteka honetan: <https://www.santanderopenacademy.com/es/index.html>.

2.- Eskabideak aurretik aipatutako estekaren bidez emanen dira, eta horiek aurkezteko epea deialdi hau NUPen iragarki ohol elektronikoan argitaratu eta biharamunean hasi,

eta 2026ko urriaren 7an bukatuko da. Banco Santanderrek aukera izanen du epearen amaiera-data aldatzeko, aurreko atalean aipatutako web-estekan.

6. oinarria.- Bekadunak Hautatzeko Batzordea

Aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta bekadunak proposatzeko, Bekadunak Hautatzeko Batzordea eratuko da, eta honako hauek osatuko dute:

- a) Batzordeburua: Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordea
- b) Mahaikidea: Ikasleen Arloko zuzendaria
- c) Idazkaria: Sarbidearen, Beken eta Tituluen Ataleko burua

7. oinarria.- Behin-behineko argitalpena, erreklamazio epea eta behin betiko ebazpena

1.- Bekadunak Hautatzeko Batzordeak esleituko ditu bekak, deialdi honen 3. oinarrian ezarritako irizpideak aplikatuz. Horretarako, Batzordeak zilegi izanen du beka-eskaerak ebazteko behar dituen dokumentuak eskatzea.

2.- 2026ko urriaren 29ko 14:30ak baino lehen argitaratuko da hautatutako ikasleen behin-behineko zerrenda, NUPen iragarki ohol elektronikoan. Halaber, zerrendan adieraziko da zer eskaeratarako proposatzen den ezezkoa ematea.

2026ko urriaren 30etik azaroaren 12ra, behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezten ahalko dira, NUPen erregistro elektronikoaren bidez eskabide orokor bat bidaliz Sarbidearen, Beken eta Tituluen Atalera (<https://sedeelectronica.unavarra.es/oficina/tramites/acceso.do?id=8256&lang=es&entity=1096>). Erreklamazio horiek Bekadunak Hautatzeko Batzordeak aztertuko ditu, eta, ondoren, bekadunak izendatzeko behin betiko proposamena eginen du, 2026ko azaroaren 16ko 14:30ak baino lehen, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordeari igorriko zaio.

3.- Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordeak ebazpen baten bidez onetsiko du bekaren esleipena, Bekadunak Hautatzeko Batzordearen behin betiko proposamena ikusirik. Bekak esleitzeko ebazpena Unibertsitateko iragarki ohol elektronikoan argitaratuko da, 2026ko azaroaren 18ko 14:30 baino lehen, eta Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 38.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du. Horrela, zilegi da aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea, errektoreari zuzendua, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko maila bereko atalari zuzendua, hilabeteko epean lehenbiziko kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarrenetan, biak ere ebazpena NUPen iragarki ohol elektronikoan argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

8. oinarria.- Bekaren onarpena eta ordainketa

1.- Ikasle onuradun bakoitzak espresuki onartu behar du esleitutako dirulaguntza 2026ko azaroaren 20tik 26ra, Banco Santanderren webgunean horretarako prestatutako sistemaren bidez (<https://www.santanderopenacademy.com/es/index.html>).

2.- NUPEk 2026ko abendutik aurrera ordainduko dio beka onuradunetako bakoitzari.

3.- Ikasleren batek beka onartzen ez badu –onarpena webgunearen esteka berean egin behar da–, Unibertsitateak onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten ikasleen artean esleituko dituzte soberan dauden bekak, deialdi honetan eskaintzen diren beka guztiak eman arte. Bekak beste ikasle horiei esleitzen zaizkienean, zazpi egun naturaleko epea izanen dute haien <https://www.santanderopenacademy.com/es/index.html> webgunearen bidez onartzeko.

9. oinarria.- Bateragarritasuna

1.- Programako beka jasotzea bateragarria izanen da ikasleei laguntzea xede duen eta programa honetakoa ez den beste edozein dirulaguntza publiko nahiz pribatu jasotzearekin.

2.- Deialdi honetako beka bat jasotzea bateragarria izanen da Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioak nahitaezko ikasketen ondorengo ikasketetarako ematen duen beka orokorra jasotzearekin, betiere bi bekak erabiltzen ez badira gastu bera finantzatzeko.

10. oinarria.- Beka indargabetzea eta itzultzea

1.- Kasu jakin batzuetan, beka indargabetu eta haren zenbatekoa osorik edo partzialki itzultzeko eskatuko da; hona hemen kasuok:

- Bekaren eskatzaileak datuak ezkutetzea edo faltsutzea.
- Beka NUPEko zer gradu edo unibertsitate master egiteko eskatu den, gradu edo master hori ez egitea.
- Beka bateraezina bada beste beka batzuekin.
- Gastuen egiaztagiriak ez aurkeztea, 1. oinarriaren arabera.
- 1. oinarrian ezarritako xedea ez betetzea.

2.- Beka indargabetzeko, Sarbidearen, Beken eta Tituluen Atalaren txosten arrazoitua behar da, eta Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordearen ebazpen baten bidez onetsiko da indargabetzea.

11. oinarria.- Datu pertsonalen babesa

1.- Deialdi honetan parte-hartzeak berekin dakar datu pertsonalen tratamendua, gaian aplikatzekoa den araudiaren arabera, hau da, Europako Parlamentuaren 2016/679 Erregelamenduaren (EB) eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko

Erregelamendu Orokorraren eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

2.- NUPEk hautatuko ditu bekadunak, eta entitate hori izanen da hautagaien datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna (haien nortasuna, harremanetarako datuak, profil akademikoa eta kalifikazio akademikoa, baita aurretik esleitutako beka ere).

3.- Bekadunak hautatzea eta haien datuak Banco Santanderri jakinaraztea bikaintasun akademikoaren sustapenean eta unibertsitateko ikasleentzako laguntza sozioekonomikoan oinarritutako datu-tratamenduak dira. Xede horiek interes publikoko oinarri juridikoarekin identifikatzen dira, zeinak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua arabera datu pertsonalen tratamendua zilegitzen baitu. Halaber, NUPEko ikasleek beren unibertsitateko matrikulan izenpetutako pribatutasun klausulari egin behar zaio aipamena, zeinak datuen "lagapenen hartzailetzat" hartzen baititu "banku-erakunde laguntzaileak".

4.- Eskatzaileek beka eskatzeko eta NUPEk hautatutako ikasleek beka onartzeko prozesuak <https://www.santanderopenacademy.com/es/index.html> webgunearen bidez egingen dira. Eskariari eta onarpenari buruzko datuak tratatzeko eragiketa horiek guztiak Banco Santanderren erantzukizunpean geratzen dira.

5.- Informaziorako eskubideaz eta bestelako eskubideez baliatu nahi izanez gero datuak babesteko araudiaren arabera, jarri harremanetan datuen babeserako NUPEko delegatuarekin (delegado.protecciondatos@unavarra.es).

6.- Uste baduzu zuk egindako kontsultari ez zaiola behar bezalako erantzuna eman, zilegi duzu erreklamazioa aurkeztea Datuak Babesteko Espainiako Agentzian: <https://www.aepd.es/es>

12. oinarria.- Errekurtsoen araubidea

Deialdi hau onesten duen ebazpenaren aurka eta deialdiko oinarrien aurka, interesdunek zilegi dute aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea errektoreari zuzendua, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko maila bereko atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, biak ere Nafarroako Unibertsitate Publikoko iragarki ohol elektronikoan argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



ERANSKINA

Zehaztapenak eta baldintza orokorrak.
“Santander bekak | Laguntza ekonomikoa 2026” programa

2026-2027 ikasturteko deialdia

1. ERANSKINA

Zehaztapenak eta baldintza orokorrak

“Santander beka | Laguntza ekonomikoa 2026” programa

I.- Deialdia egin duten entitateak

2026ko “Santander Beka | Laguntza ekonomikoa 2026” programa **Banco Santander SAK** sustatu du –IFKa: A-39000013; helbidea: Juan Ignacio Luca de Tena 11-13, Madril, 28027; helbide elektronikoa: becasantander@gruposantander.es–. Hemendik aurrera, “Programa” erabiliko da “Santander Beka | Laguntza ekonomikoa 2026” esateko, eta “Santander” erabiliko da entitateari esateko.

II.- Helburuak

Programaren baitan, ikasleak goi mailako hezkuntzan sar daitezten sustatu eta erraztuko da, bai **gradu, master edo graduondoko** ikasketetako edozein ikasmaitako ikasleei –betiere Santanderrekin edo Banco Santander Fundazioarekin hitzarmen bat sinatu duten Espainiako unibertsitate batean badaude matrikulatuak–, bai **goi mailako Lanbide Heziketako** ikasleei –betiere Espainiako unibertsitate bateko lanbide heziketako ikastegi batean badaude matrikulatuak eta unibertsitate horrek hitzarmen bat sinatu badu Santanderrekin edo Banco Santander Fundazioarekin–. Aurrerantzean, “Unibertsitateak” erabiliko da unibertsitate horiei guztiei esateko.

Zehazki, beka gehienez 9.108 ikaslek jaso dezaten sustatuko da. Beka bakoitza 1.000 eurokoa izanen da, eta esleipenaren egunean onuraduna zer ikasketatan dagoen matrikulatuta, ikasketa horien garapenari eta haietan modu eraginkorrean jarraitzeari loturiko gastuak ordaintzeko erabiliko da (aurrerantzean, “Beka” esanen zaio beka horietako bakoitzari)

Deialdi honetako beka bat jasotzea bateragarria izanen da Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioak nahitaezko ikasketen ondorengo ikasketetarako ematen duen beka orokorra jasotzearekin, betiere bi beka erabiltzen ez badira gastu bera finantzatzeko.

Zehazki, honako kontzeptu hauetakoren bat edo batzuk ordaintzeko erabiliko da beka:

- Ikasketetan jarraitzeko beharrezkoa den material informatikoa erostea (ordenagailuak, tabletak, periferikoak edo software espezifikoak).
- Internetera konektatu eta sartzeko gastuak.
- Hiriarteko garraioaren gastuak, dela ikastegira joateko, dela ikastegitik beste herri batera joateko, matrikulatutako ikasketekin lotutako jarduerak egiteagatik (praktikak, unibertsitate arteko ikasketak egitea, titulazio bikoitzak, aipamenak, etab.).

- Unibertsitateko jantokiaren gastuak.
- Bigarren matrikuletatik eratorritako gastuak (kasua bada), bai eta deialdi orokorreko bekek estaltzen ez dituzten zabalpen kredituetatik eratorritakoak ere.
- Material bibliografikoa erostea.

Kontzeptu horietako edozeinetarako erabiltzen ahalko dira bekek, barne hartuta matrikularen eta prezio akademiko ofizialen gastuak, salbu eta gastu horiek ez badira partzialki edo erabat finantzatuak izan Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioak nahitaezko ikasketen ondorengo ikasketetarako ematen dituen beka orokorrekin.

Aurretik adierazitako kontzepturen batera bideratu beharko da beka, eta ikasturtearen barnean erabili beharko da; gainera, Unibertsitateak hala eskatzen badu, onuradunek egiaztagiri bat aurkeztu beharko dute beka zertarako erabili duten adierazteko.

Justifikazioa modu sinplifikatuan egingo da, honela:

- Onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, aurreikusitako kontzepturen batean beka aplikatzeari buruzkoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, Unibertsitateak, ikasturtea amaitu ondoren, ausazko kontrolak eginen ditu gastuen egiaztagiriak eskatzeko (fakturak, ordainagiriak, bidaien egiaztagiriak edo kontratuak); egiaztagirien kopurua osotara emandako beken % 5 izan beharko da gutxienez, eta nahitaezkoa izanen da gutxienez 10 egiaztagiri eskatzea. 10 beka baino gutxiago ematen badira, den-denak kontrolatuko dira.

Unibertsitateak bere barne araudiaren arabera zehaztuko du egiaztatze prozedura zehatza.

Beken xedeaz bestelako xede baterako erabiltzen badira bekek, beken zenbatekoa itzuli beharko da, Unibertsitatearen barne araudiaren arabera.

III.- Parte hartzen duten unibertsitateak

Santanderrek unibertsitateei zabalduko die programan parte hartzeko aukera, Santanderrek haietako bakoitzari esleitutako beka-kopuruaren arabera.

Parte hartzeko, unibertsitate bakoitzak berariaz onartu beharko ditu legezko oinarriak, eta, horretarako, programaren termino eta baldintza orokor hauek ezagutu eta onartu beharko ditu. Izan ere, hori unibertsitateen eta Santanderren arteko lankidetzahitzarmentzat hartuko da. Hori guztia Santanderrek www.santanderopenacademy.com webgunean duen tresnaren bidez egingen da (aurrerantzean, "**plataforma**").

Unibertsitate bakoitzaren ardura izanen da hari dagozkion bekak kudeatu, ebatzi eta esleitzea; edonola ere, dokumentu honetan jasotako terminoak eta baldintzak errespetatu beharko dituzte unibertsitateek, bai eta barneko prozedurak koordinatu eta kudeatu ere, funtzionamendua egokia izan dadin.

Plataformaren bidez egingen da programan izena emateko prozesua, bai eta hautagaitzen kudeaketa eta izangai onuradunen aukeraketa ere.

IV.- Nork hartzen ahal duen parte

Izangaitzat hartuko dira, eta, beraz, programa honetan sarituak izaten ahalko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten ikasle unibertsitarioak (aurrerantzean, "izangaiak"):

1. **Gradu, master edo graduondoko** ikasketetako edozein ikasmaitako ikasleak izatea –betiere Santanderrekin edo Banco Santander Fundazioarekin hitzarmen bat sinatu duten Espainiako unibertsitate batean badaude matrikulatuak–, edo **goi mailako Lanbide Heziketako** ikasleak izatea –betiere **Espainiako unibertsitatearen bateko lanbide heziketako ikastegi batean badaude matrikulatuak eta unibertsitate horrek hitzarmen bat sinatu badu Santanderrekin edo Banco Santander Fundazioarekin–.**

2. Bekak esleitzeari buruzko apartatua zerrendatutako irizpideak betetzea.

Unibertsitatearen ardura izanen da ikasleek baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea; horretarako, izangaien datu pertsonalak erabiliko ditu, zeinak Unibertsitatearen datu basean baitaude.

Unibertsitateak izangaiei buruz bereziki babestutako datu pertsonalak bildu behar baditu –unibertsitateak beharrezkotzat jotzen duen edozein ziurtagiri edo dokumentazio barne–, datu pertsonalak babestearen arloan unean-unean indarrean dagoen araudia hartuko da kontuan.

Unibertsitateak ez die inolaz ere izangaiei buruz bereziki babesturik dagoen daturik emanen Santanderrri edo haren filiaiei.

V.- Beken edukia

2026ko deialdi honetara **BEDERATZI MILIOI EHUN ETA ZORTZI MILA EURO (9.108.000 €)** bideratuko dira gehienez; horrela, 1.000 euroko 9.108 beka emanen dira, jarraian xedatutakoaren arabera.

Santanderren edo Banco Santander Fundazioaren eta unibertsitateen artean sinatutako lankidetzak-hitzarmen orokorren kontura finantzatuko da beken ekarpena, betiere programa argitaratzen den egunean indarrean badaude hitzarmenak.

Zenbatekoak, bestetik, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko 2002ko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 25. artikuluan aurreikusitako izaera du, eta programa honetara bideratu beharko da oso-osorik.

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, unibertsitateek nahitaez zabaldu behar dute Santanderrek parte hartzen duela programa honetan, "Zabaltzea eta publizitatea ematea" atalean xedatutakoaren arabera. Hori guztia, plataformaren bidez unibertsitateak programari atxiki zaizkiolako, eta horrek lankidetzaz-hitzarmen baten balioa duelako.

Nolanahi ere, ikasle bakoitzak jasoko duen bekaren zenbateko unitarioa berbera izanen da unibertsitate guztietan, programan parte-hartze hutsak konpromiso hori baitakar.

Programako beka jasotzea bateragarria izanen da ikasleei laguntzea xede duen eta programa honen xede diren beken izaera berekoa edo desberdinekoa den beste edozein dirulaguntza publiko nahiz pribatu jasotzearekin, betiere praktikak programaren babesean egiten dituen ikasleak jasotzen ahal baditu.

VI.- Programaren kudeaketa

Izen ematea

Beken onuradun izateko ezinbesteko baldintza izanen da plataformaren bidez egotea izena emanda programan, ahal dela izangai bakoitzak bere helbide elektronikoarekin. Plataforma horretan unibertsitate bakoitzarentzat prestatutako kudeaketa-sistemaren bidez jakinaraziko da beka eman dela.

Ikasleek 2026ko apirilaren 21etik urriaren 7ra bitartean ematen ahalko dute izena.

Unibertsitate bakoitzak baldintza gehigarriak ezartzen ahalko ditu, bai eta programa garatu eta gauzatzeko barneko deialdiko ohiko kudeaketa-prozedurei jarraitu ere, unibertsitatearen barneko araudiaren eta beka emateko politiken arabera; hala ere, prozedura horiek ez dute baldintza orokor hauetan ezarritakoa urratzen ahalko.

Programa amaitzean, emaitzak aurkezteko ekitaldi bat antolatzen ahalko da. Ekitaldia Santanderrek koordinatuko du, programa sustatzen duen enpresa den aldetik, eta hura antolatzearen, aukera izanen du programaren onuradunekin harremanetan jartzeko, edozein bitarteko erabiliz, baita bide elektronikoz ere.

Izangaien artean beka esleitzea

Unibertsitate bakoitzak erabakiko dute zein izangairi esleituko zaizkien beka (aurrerantzean, "**onuradunak**"). Izangaien errendimendu akademikoaren arabera hautatzen ahalko dituzte unibertsitateek onuradunak, programaren deialdiaren

aurreko ikasturteko espediente akademikoa erreferentziatzat hartuta. Gradu lehenbiziko ikasmalako ikasleen kasuan, unibertsitatean sartzeko nota hartzen ahalko da kontuan. Zilegi izanen da baldintza hori unibertsitate bakoitzean ponderatzea, jakintza-arloaren edo unibertsitateak erabaki beharreko beste barne elementu batzuen arabera.

Aurrekoa gorabehera, unibertsitateek, klausula honen aurreko apartatuan aurreikusitako irizpidez gain, beka esleitzeko egokitzat jotzen dituzten beste irizpide batzuk ere hartzen ahalko dituzte kontuan, betiere deialdi honetan ezarritako irizpideari eragiten ez badiote. Unibertsitateen erantzukizuna izanen da horiek benetan betetzen direla zehaztu eta egiaztatzea, bai eta programa garatzeko eta gauzatzeko barneko deialdian ohikoak diren kudeaketa-prozedurei jarraitzea ere, beren barneko araudiaren eta beka emateko politiken arabera.

Hala ere, egokitzat jotzen badute, unibertsitateek lehentasuna ematen ahal diete Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren beka sozioekonomiko baten onuradun izan diren ikasleei, edo % 33ko desgaitasuna edo handiagoa egiaztatua dutenei, edo hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak edo behar bezala egiaztatutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei.

Unibertsitateek 2026ko azaroaren 19ra arte izanen dute beka esleitzeko. Esleipen hori onuradunei jakinaraziko zaie, eta horiek zazpi egun natural izanen dituzte beka plataformaren bidez onartzeko.

Onuradunen bakoitzari beka zer unibertsitatek ematen dion, unibertsitate horretan amaitu beharko ditu onuradunak gradu, goi mailako LHko, masterreko edo graduondoko ikasketak; bestela, bekaren zenbateko ekonomikoa itzuli beharko dio unibertsitateari, eta unibertsitate horrek irizpideak betetzen dituen hurrengo izangaiari eman beharko dio beka.

Onuradun bakoitzaren izenean Banco Santander SAn irekitako kontu batean ordainduko dute unibertsitateek bekaren zenbatekoa.

Programa 2026ko abenduaren 31n (aurrerantzean, "epea") amaituko da.

Epea amaitzean, unibertsitateek beka guztiak izan beharko dituzte esleituak, eta bekaren bat ez bazaio inori eman, beka hori berresleitzeko prozedurara jo beharko dute, ziurtatzeko bekarik ez dela gelditzen esleitu gabe.

Klausula honetan aurreikusitako datak aldatzen ahalko dira Santanderren irizpidearen araberrako legezko oinarri jarraikiz, eta, nolana ere, plataforman argitaratuko dira.

VII.- Zabaltzea eta publikitatea ematea

Unibertsitateko komunitatean programa zabaldu eta sustatzeko konpromisoa hartuko dute unibertsitateek, eta, betiere, modu argian identifikatuko dute plataforma.

Unibertsitateek berariaz adieraziko dute, horrez gain, "Santander Bekak | Laguntza ekonomikoa 2026" izena, eta, halaber, Santanderren logotipoa sartuko dute programarekin lotuta egiten dituzten dokumentazioetan eta euskarrietan.

VIII.- Programaren fiskalitatea

Bekei une bakoitzean indarrean dagoen zerga-araudia aplikatuko zaie, eta, zehazki, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruz xedatutakoa. Horren ondorioz, batzuetan, erakundeek zerga horren konturako atxikipenak egiten ahalko dituzte, eta bekaren onuradunak urteko errenta-aitorpenean dagozkion zenbatekoak sartzeko betebeharra izaten ahalko du (bekaren onuradunaren erantzukizun eskusiboa izanen da zerga-betebeharrak betetzea).

IX. Datuen babesa

Plataforman argitaratutako pribatutasun adierazpenaren dokumentuan dago jaso deialdi honetan aplikatzekoa den datuak babesteko politika, legezko oinarri hauekin batera.

X.- Jarraipena

Programa amaitu eta bekak esleitu ondoren, unibertsitateek plataformaren bidez identifikatu beharko dituzte onuradunak, bai eta beka jaso ez dituztenak ere; horretarako, plataforman hori egiteko ezarritako modua erabiliko dute. Santanderrek, programaren deitzaile den aldetik, modua izanen du informazio hori eskuratzeko.

Bai programa egiten den bitartean, bai amaitu ondoren, unibertsitateek plataformaren bidez emanen diote Santanderri informazio zehatz horren berri, bai eta behar bezalako jarraipena egiteko programari eta haren gauzatzeari buruz eskatzen dieten beste edozein informazio ere.

Unibertsitateak arduratuko dira programaren jarraipen eraginkorra egiteaz, ohiko prozeduren arabera, eta, halaber, Santanderrek deialdiaren amaieran eska dezakeen jarraipenari buruzko informazioarekin dokumentu bat egin beharko dute.

XI.- Onartzea eta aldatzea

Programaren deialdi honetan parte hartzeak berekin dakarkie izangaiei oinarriak onartzea.

Santanderrek beretzat gordetzen du oinarri hauek interpretatzeko eskubidea. Era berean, beretzat gordetzen du programaren deialdiaren edozein zehaztapen edo baldintza aldatzeko edo zuzentzeko eskubidea, zati batean edo osorik, edozein unetan; are gehiago, deialdia eten, atzeratu edo ezeztatzen ahalko du, behar bezala justifikatutako arrazoi objektibo bat kontuan hartuta, eta deialdi honen bidez lortu nahi den inpaktu soziala babesteko helburuarekin; kasu horretan, plataformaren bidez emanen die izangaiei aldaketan berri.

XII.- Aplikatzekoak diren legeak

Programa, oinarri hauek, unibertsitateen atxikitzeak eta, oro har, horien garapena eta betearazpena Espainiako legeen mende daude.